

GOTZON GOENAGA S. J. (1915-1974)

Udazkeneko arrats euritsu batean, ez bat ez bi hil zitzai-
gun Gotzon Urumea hibai ondoan, U.S.A.-tik etorri berria ze-
larik, E.U.T.G.-ko Filosofia saileko Dekanotza ostera hartu be-
rria zuelarik eta euskararen aldeko lan latzetan buru eta be-
larri sartu-sartua zegoen garaian. Goian bego.

Zegaman jaioa zen 1915ean. Aita tolosarra zuen eta ama
oiartzuarra. Lagundiko ikaskuntzak Tournai-n eta Marneffe-n
(Belgikan) eta Burebako Oiñan burutu zituen. 1945ean egin
zen apaiz. Indautxun eta Kanarias-en eskolak ematen lau-bost
urte aritua zen, Bartzelonan Filosofiako Lizentzia, ez-ohiko sa-
riaz, eskuratu zuenerako.

Karrera bukatuz gero, Iruineko eta Donostiako jesuiten
ikastetxeetan, Donostia bertako Gizarte-Laguntzaileen eskolan
eta Zabalegi Erakundearen jarraitu zen eskolak ematen. E.S.T.E.
sortu zenean, hara igaro zen Etika eta Natur-Eskubidezkoak
irakastera.

Garai honetan ekin zion, txolarteez baliaturik, Doktor Te-
sisari. 1966an aldeztu zuen Madrilen, epai-mahaiean Zaragüeta,
Adrados eta Lapesa zituelarik, bere HUTS hitzari buruzko te-
sisa. E.U.T.G.-ko Filosofia saileko Dekano zen urte haietan.

Gehiago ikasi nahiez eta gogoan zituen euskal lanak ho-
beki burutzeko bere burua areago trebatzarren, U.S.A.-n sei
urte handi eman zituen. Garai hartan berrogeitahamaika urte
zituen gure Gotzonek. Columbiako Unibertsitatean *visiting
scholar* izan zen eta Fordham eta Syracuse-koetan Espainiako
Literatur irakasle.

E.U.T.G.-ra itzultzean eta bere bizitzako azken urtean, le-
hen esan bezala, Filosofia saileko Dekanotza hartu zuen berri-
ro. U.S.A.-n hasiak zituen euskal lanak osatzen ari zelarik atze-
man zuen herioak. Hona eskuartearen zituen zenbait:

“Sikologi hitzen euskal hiztegia”.

“IZAN EGON-EGOKA EDUN-EDUKI eta euskal izatea”.

“Ahal izatea eta ezina. Nahitaezkoa eta badaezpadakoa”.

“ARI-IHARDUN-EGIN: galdegaia”.

“GEI, GAI, GA(I)TIK, ERAZI: kausalidadea”.

“ALDI, ALDE, ALDA: lekua, denbora, mugimendua”.

Baina GOGO zuen hitz denetarik maiteena eta aztertuen bere azken urteetan. Hitz horren zentzu sakona, hobeki esan, dituen zentzu guztien barren-barrengo muina zein zeitekeen kezkatu bizi zen. Antzinako eta geroagoko iturrietara jo eta Dtxepare, Tartats, Oihenart, Axular, Leizarraga, Mendiburu-engan eta atsotitz zaharretan agertzen zen pasarte guztiak ikertzen eta aztarrikatzen ari zen. “Fontes Linguae Vasconum”-en argitara zituen lan horietarik gehienak.

Lehendik argitaratuak zituen beste honako lanok:

Schuchardt-en “Baskisch und Romanisch”, BRSV-en.

Aristóteles, Cicerón, Kant eta Hegel-i buruzko idazlanak “Revista de Ideas estéticas”-en.

“Agurea ta itxasoa”, Hemingway-ren novela ezaguna.

Hamaika lan utzi du osatu gabe; milaka fitxa utzi ditu pilaturik, berak gogoan eta eskuartean zituen lanetarako ger-turik eta besterentzat baliagarri nekez izateko eran. Besterik utzi digu, ordea, bere ondoan bizi gineno sekula ahaztuko ez zaiguna: euskal lanetarako seta eta gelako lan isilean ordu luzeak euskal kultur bizia lantzen emateko ohitura.

Euskaltzaindiko laguntzailea zen 1965etik. Goian bego.

P. Altuna